



Ayuntamiento de
Pamplona | Iruñeko
Udala



malandain
ballet | biarritz



Deialdia

Planeta dantzan hezkuntza-programa:

Fossile

DBHko lehenengo zikloa.



**Ingurumen larrialdi/aukera eta dantza
Ingurumen-hezkuntza mugaz gaindi**

Eskabideak aurkezteko epemuga
2020/12/21

TESTUINGURUA

Arazoa Fosil-eredua

Azken mendean erregai fosilak mundua mugitzen duen energia-iturri bilakatu dira. Hala ere, horien errekuntzak Negutegi Eftukoko Gasen isurpenak handitzea ekarri du, eta gas horien ondorioz Klima Aldaketa dugu, ingurumen larrialdiaren sintometako bat, bioaniztasunaren galera, ingurumen gatazka eta abarrekin batera.

Pertsonak bizitza-egituraren parte gara, munduan engaiaturik bizi gara. Gure historia fosila bertatik azaleratzen da, gure orainak planeta honetatik edaten du, eta, zalantzarik gabe, gure etorkizun hurbila ere bertatik edan, arnastu eta elikatuko da. Eta planetarekin eraikiko da.

Premiazkoa da hori ulertzea. Baina ez hori bakarrik. Gure bizitzaren txoko guztietan ere aplikatu behar da. Eta ulertu —eta aplikatu— duen orok gainerakoekin partekatu dezala lortutakoa, horretarako izan dituen zailtasunak ere helaraziz. Elkarrekin zabal dezagun guztiok sortzeko, dantzatzeko eta ikasteko aukera emanen digun etorkizun hori.

Planeta dantzan- Fossile programa

Dantza eta ingurumen-hezkuntza uztartzen dituen ibilbide pedagogiko bat

Malandain Ballet Biarritz taldearen *Sirènes* ozeanoetako plastiko-kutsadurari buruzko balletean oinarrituta, Iruñeko Udaleko Ingurumen Hezkuntzako Lantaldeak eta Donostiako Cristina Enea fundazioak bat egin zuten 2018an ibilbide pedagogiko berritzaile bat diseinatzeko.

2018-2019 eta 2019-2020 ikasturteetan, Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualedearen laguntzari esker, sentsibilizazio-programa hau eskaini zen Biarritz, Donostia eta Iruñeko ikastetxeetan.

2020an, Euroeskualedearen laguntza berrituta, programari jarraipena eman zaio, *Planeta Dantzan* programaren bidez. Malandain Ballet-en erreperorioaren obretatik abiatuta, bazkideek ibilbide-pedagogiko berriak sortu eta ikasleak ustez urrun dauden munduetara hurbiltzen dituzte: dantza eta ingurumenaren eta gizartearen problematika. *Fossile* dugu ikasturte honetarako inspirazio izanen den koreografia, eta ingurumen arloko sentsibilizazioa eta klima larrialdia eta horri erantzuteko beharra izanen ditu ardatz.

Programaren **helburu nagusia** da DBHko lehen zikloko ikasleak kontzientziaztea planeta osasuntsu eta funtzionala edukitzeko dugun behar sakonaren inguruan, bai eta hori zauritzen duen ingurumen-krisiaren aurrean izan daitezkeen alternatibak erakustea ere. Proiektu honek honako **etapa didaktiko** hauek ditu (ikus taula aurrerago):

1. Unitate didaktikoa eskuragarri ikasgelan erabiltzeko ikasturtean zehar (2021eko urtarriletik).
2. Prestakuntza-lantegi mistoa (dantza eta ingurumen-hezkuntza), ingurumenari buruzko ekarpena eta koreografiak elkartzen dituen, ikasleentzat (martxoaren 2, 3 eta 5ean eta martxoaren 8tik 12ra).
3. Prestakuntzako koreografia-lantegia, Malandain Balleteko dantzari batek zuzendua (martxoaren 16, 17, 23 eta 24an eta apirilaren 12tik 16ra).
4. Eskolendako emanaldia zeinean, *Fossile* obra ezagutzeaz gain, ikasleek aukera izanen baitute solasaldi batean parte hartzeko Malandain Ballet Biarritzeko dantzariekin (2021eko maiatzak 6 edo 7).



HELBURUAK

- Bigarren Hezkuntzako lehen zikloko ikasleak kontzientziatzea planeta osasuntsu eta funtzionala edukitzeko dugun behar funtsezko eta etengabeari buruz (Ekodependentzia).
- Gogoeta egitea gure eguneroko kontzientziaren eta behar horren artean dagoen aldeari buruz, bai eta horrek dakarren arriskuei buruz ere (Ingurumen larrialdia).
- Modu kritikoan aztertzea ingurumen egoera, horren zergatiak eta arduradunak (Interdependentzia).
- Horren aurrean jarrera sortzaileak eta proaktiboak sustatzea.
- Hasiera batean urrun dauden diziplina eta hizkuntzak, hau da, dantza eta ingurumen-hezkuntza, batzea.
- Ikasleak dantzaren munduan sarraraztea, arte-, adierazpen- eta komunikazio-baliabide gisa.
- Nazionalitate-, hizkuntza- eta ogibide-aniztasunetik abiatuta, elkarlanaren ahalmena lantzea ingurumen-erronken aurrean.

IBILBIDE PEDAGOGIKOA

Unitate didaktikoa

(Urtariletik aurrera eskuragarri)

ikastetxeek unitate didaktiko bat izanen dute ikasgelan ingurumenari buruzko alderdiak lantzeko. 5 jarduera ditu, guztiak ikasgelan bertan egiteko modukoak. **Hiru jarduera derrigorrezkoak izanen dira** (1., 3. eta 5. jarduerak). Ikusi jardueren laburpena Eranskinean.

Prestakuntza-lantegi mistoa Dantza eta ingurumen-hezkuntza

Gaur egungo ekoizpen eta kontsumo ereduari buruzko gogoeta. Metodologia mistoa izanen da:

1. Ingurumen-hezitzaile batek programa, hau da, ingurumenari lotutako problematika aurkeztuko die ikasleei.
2. Koreografia-monitore batek dantzarekin lehenengo hurbilpen bat eskainiko die.

Hizkuntzak: euskara edo gaztelania.

Lekua: ikastetxeko ikasgela bat, dantzarako egokitua.

Iraupena: 2 ordu talde bakoitzeko.

Datak: Martxoaren 2, 3 eta 5a eta martxoaren 8tik 12ra.

Prestakuntzako koreografia-lantegia

Koreografia-monitore batek modu praktikoan sakonduko du, taldean, *Fossile* obran ikus daitekeenaren gainean.

Hizkuntza: gaztelania.

Lekua: ikastetxeko ikasgela bat, dantzarako egokitua.

Iraupena: 2 ordu talde bakoitzeko.

Datak: Martxoaren 16, 17, 23 eta 24an

Eskolendako emanaldia

Taldeek Biarritzeko Malandain Balletaren *Fossile* obraren emanaldia ikusiko dute.

Obrak mahai gainean jartzen ditu, modu original eta artistikoan, planetaren, gizateriaren eta gaur egungo ingurumen larrialdiaren arteko loturak. Amaitzeko, solasaldi bat izanen da ballet konpainiarekin.

Hizkuntzak: frantsesa, euskara eta gaztelania.

Tokia: Gare du Midi, Ballet Malandain (Biarritz).

Iraupena: Ordubete.

Datak: 2021eko maiatzak 6 edo 7.



BESTE JARDUERA BATZUK

Ikasturte honetan, ibilbide pedagogikoaz gain, honako jarduera hauek eskaintzen dira. Horiek egiteko xehetasunak interesa duten ikastetxeetan zehaztuko dira programak aurrera egin ahala eta osasun-egoeraren bilakaeraren arabera.

1. Aukerako jarduera didaktikoak (maiatzak 6 edo 7, *Fossile* obraren eskola-emanaldiarekin batera)

- Bisita gidatua Biarritz Océan-era (<https://www.biarritzocean.com/es/>). Kostua, gutxi-gorabehera, 6 euro ikasle bakoitzeko. Hezkuntza-programak erreserba eta bestelako kudeaketa-lanak egingen ditu.
- Bisita gidatua Biarritzeko Gare du Midin. Hezkuntza programak finantzatutako jarduera, zeinean, arte-gidari baten eskutik, dantza-konpainia baten bitzita ezagutuko baita, eszenatokitik haratago.
- Bisita gidatua proiektuaren erakusketan. Hezkuntza-programak finantzatutako jarduerak. Ingurumen-hezitzaile batek hezkuntza-programaren erakusketa erakutsiko du, zeina osatu baita material pedagogikotik eta parte hartzen duten ikastetxeek egindako lanetatik abiatuta.

2. Mugaz gaindiko kultur trukeak

Elkarrekin eraikitzeko jarduerak interesa duten ikastetxeekin batera.

- Taldeen arteko interrelazioa.
- Kultur/ingurumen bisita Donostiara. Ikastetxearen beraren interesen arabera, ikasleei jarduera ezberdinetan parte hartzeko aukera eskainiko zaie: bisita gidatua Victoria Eugenia Antzokira, Cristina Enea Ingurumen Baliabideen Etxera, Aquariumera... Bidaia horietan aukera emanen da proiektuan parte hartzen duen tokiko ikastetxearekin kultur topaketa egiteko.
- Happening (eskolaz kanpoko; maiatzak 8, larunbata): ikasleak animatuko ditugu zein bere familiarekin parte hartzera Biarritzeko happening-ean. Oraingo honetan euroeskualdeko artistak gonbidatuko dira ingurumenaren babesa sustatzea helburu duen ekitaldi honetan parte hartzera.



KONPROMISOAK

Planeta dantzan: Fossile programaren arrakastak proiektuaren sustatzaileen eta ikastetxeen konpromisoa eskatzen du. Programan parte-hartzeak alde bakoitzak honako puntu hauek onartzea eskatzen du:

Ingurumen Hezkuntzako Lantaldearen konpromisoak (IHL)	Ikastetxearen konpromisoak
<p>1. Programaren akonpainamendua: Ingurumen-hezkuntzako lantaldeak konpromisoa hartzen du ikastetxeei laguntza emateko programa abiatzean laguntza teknikoa eta babesa emanez. Laguntza hori hainbat bideren bitartez egingen da:</p> <ul style="list-style-type: none"> • <u>Ikastetxean bertan egotea</u>: hasierako eta amaierako bilerak programa aurkezteko, aholkularitza emateko eta ebaluazioa egiteko. Talde bakoitzaren lehenbiziko saio koreografikoan egotea. • <u>Lantaldearekin harremanetan jartzeko</u>: <ul style="list-style-type: none"> - 948 420 984 telefonoa - e-maila: educaciónambiental@pamplona.es <p>2. Gastuak: jarduera guztiak Iruñeko Udalak finantzatuko ditu, edo euroeskualdearekin batera kofinantzatuko.</p>	<p>1. Ikastetxeko zuzendaritza-taldearen babesa programan engaiatzeari.</p> <p>2. Irakasleak engaiatzea: pertsona bat, koordinatzaile lanetan ikastetxean eta Ingurumen Hezkuntzako Lantaldearekin. Horretaz gain, ikastetxearen proposamenak barne hartzen badu zenbait irakaslek, irakasgaik edo departamentuk parte hartzea, lanbatzorde bat osatu beharko da, eta hori Lantaldearekin elkartuko da programaren jarraipena egiteko.</p> <p>3. Ibilbide pedagogikoaren etapa guztiak egiteko konpromisoa.</p> <p>4. Unitate Didaktikoa: UDko hiru jarduera egin, gutxienez (1., 3. eta 5. jarduerak).</p> <p>5. Ebaluazioa: irakasleek ikasleekin batera egingen dute jardueren ebaluazioa, amaitu eta gero. Horretaz gain, amaierako ebaluazio-saioa egingen da Ingurumen Hezkuntzako Lantaldearen eta irakasleen artean.</p>



OSASUN EGOERA

- Ibilbide pedagogikoan sartutako prestakuntza-lantegiek osasun-egoerari egokitutako protokoloak izanen dituzte, hala lurralde bakoitzeko egoeraren nola lantegia noiz egin eta data horien arabera egokituta.
- Lantegi horiek burbuila-taldeetan egingen dira.
- Ikastetxeek areto bat, kiroldegi bat edo lantegia behar bezalako balditzetan egiteko aukera ematen duen antzekoren bat izan beharko dute (espazioa, aireztapena, lotura eta musika-ekipoa, etab.).
- Programa lurralde bakoitzaren egoerara eta une bakoitzera egokitu beharko da ezinbestean. Beharrezkoa bada, fase bat edo zenbat aldatuko dira, edo horietarako alternatibak bilatuko dira.



NOLA PARTE HARTU?

Hartzaileak

Programa hau Iruñeko Udalerriko ikastetxeetako **Bigarren Hezkuntzako lehenengo hiru mailetakoko irakasle eta ikasleei zuzentzen zaie.**

Hautatzeko irizpideak

Hautaketa Ingurumen Hezkuntzako Lantaldeak egingen du, eta horren emaitza ikastetxe eskatzaile guztiei jakinaraziko die.

Hona hemen hautatzeko irizpideak:

- Programan Iruñeko Udalerrian kokatuta egonda Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza duten ikastetxeek bakarrik izanen dute parte hartzeko aukera.
- Lehenetasun-hurrenkera: ikastetxe publikoak, itunduak eta pribatuak (10 puntu gehienez)
- Ikastetxeko ikasmaita osoak parte hartzea baloratuko da, bere linearekin bat. Hau da, ikastetxe batek DBHko 2. mailako ikasleekin parte hartzea eskatzen badu, eta ikastetxe horretan maila horretako 5 talde badira, baloratuko da 5 taldeekin parte hartzea eskatzea. (20 puntu gehienez)
- Ingurumenari buruzko proiektuetan alde aurretik egindako lana baloratuko da, bereziki zenbait irakasgairen artean zeharka landutakoak (10 puntu gehienez).
- Baloratuko da zenbait ikasgairen inplikazioa eta konpromisoa programa garatzeko. Inplikazio hori memorian zehaztu beharko da, ahal den neurrian (50 puntu gehienez).
- Baloratuko da zentroak lehenengo aldiz parte hartzea Iruñeko Udalaren koreografia-, ingurumen- eta hezkuntza-proiektu batean (10 puntu gehienez).

Edonola ere, jasotako eskaera guztietatik gehienez 15 talde aukeratzen ahalko dira.

Eskabideak

Programan parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea 2020ko azaroaren 26ean hasi eta abenduaren 21ean amaituko da, 14:00etan.

Izena emateko orriak posta elektronikoz bidali beharko dira helbide honetara:

educacionambiental@pamplona.es

Eskabidearekin batera honako agiri hauek aurkeztuko dira:

- Izena emateko fitxa (ikastetxe bakoitzeko bat). (ikus eranskina).
- Ikastetxearen justifikazio-memoria (ikus eranskina).



Ayuntamiento de
Pamplona | Iruñeko
Udala



 **malandain**
ballet | biarritz



ERANSKINA



Unitate Didaktikoko jardueren laburpena

01. jarduera	FUNTSEZKOA DEN HORI (iraupena: Saio 1 edo 2)
Derrigorrezko jarduera Ikasleek gogoeta eginen dute bizitzarako funtsezkoak diren beharrei buruz, eta aztertu horri eragiten dioten faktoreak eta zer puntutaraino diren ikusgarriak merkataritza-markekin alderatuta.	
02. jarduera	BIZITZA EZ DA MARKA BAT (iraupena: saio bat)
Jarduera honetan publizitateak eta kontsumoak gure iruditerian duen eragina aztertuko da, eta ikusiko da nola moldatzen duen horrek gure jokabidea.	
03. jarduera	BIOGRAFIAK: GAUZEN BIZITZA (iraupena: Saio 1 edo 2)
Erabiltzen dugun gauza bakoitzak beste pertsona, beste ogibide eta beste errealitate batzuekin lotzen gaitu. Zer tratamendu izaten dute egunero erabiltzen ditugun artikuluek edo arnasten dugun aireak guregana iristeko? Zer alde dago ekoiztu, erabili eta botatzen dugun horren eta naturaren zikloen artean? Badu horrek guztiak gaitasunik ingurumeneko arazoan aurrean irtenbideak iradokitzeko?	
04. jarduera	Sare arduratsua (iraupena: saio bat)
Kontsumitzaile garen heinean, ustez erabat ezberdinak diren errealitateetara lotuta gaude. Horrek aldaketarako dugun gaitasunaren dimentsio bat erakusten digu: aldatu dezakegu zenbat eta zer erosten dugun, txorrotari itxi, etab. Baina nahikoa da horrekin? Zer erakundek, araudik eta harremanek egituratzen dute mundua guk ezagutzen dugun modu horretan? Zer motibazio ditu eragile bakoitzak? Noraino aldatu behar da, eta zer mailatan? Zer paper bete nahi dugu guk horretan guztian?	
05. jarduera	SENTSIBILIZAZIO-JARDUERA (iraupena: Irakasleen irizpidearen arabera).
Derrigorrezko jarduera Behin aurreko jarduerak eginda, ikasleak informazioaren xede (hartzaille) izatetik informazioaren subjektu (igorle) izatera pasa daitezke. Kontzientziazio-kanpaina bat diseinatu eta eginen da Ingurumen larrialdiari, haren ondorioei eta har daitezkeen konponbideei buruz. Irakasleen irizpidearen arabera geratuko da zer publikorentzat antolatu kanpaina, zenbat baliabide erabili etab. Ikastetxeek sortutako materiala ikusgai jar daiteke programaren webgunean eta horren erakusketa ibiltarian.	



Sentsibilizazio-jarduera

Unitate Didaktikoaren amaieran, ikastetxeak konpromisoa hartzen du ingurumen larrialdiari, haren ondorioei zein izan daitezkeen irtenbideei buruzko ekintza bat planteatu eta egiteko. Jarduketa horrek sormenezkoa eta irekia izan behar du. Izan daiteke konpromiso bat (Nire kontsumo-maila murrizten dut), edo esku-hartze bat espazio publiko batean. Artelan bat egin daiteke (eskultura bat, koreografia bat, performance bat, etab.), edo adibide praktikoak egin (erakusketa bat, kartelak, Ikasketa eta Zerbitzua, Trashtag Challenge...).

Hala sormen prozesua nola emaitza dokumentatu behar dira argazki-erreportaje, idatzizko memoria, bideo baten edo bestelako bitarteko baten bidez, jarduketatik beretik harago aukera izateko aurrerago hura hedatu eta partekatzeko, haren bizitza erabilgarria luzatuz. Ideia ez da erabilera bakarreko ekintzak sortzea, baizik eta ekintza originalak eta berrerabilgarriak egitea.

Ikastetxe bakoitzean izan daitezkeen egoeren aniztasuna kontuan hartuta, aukera dago ekintza bera egiteko parte hartzen duten talde guztietan, edo ekintza ezberdin bat egiteko talde bakoitzean. Prozesuaren eta ekintzaren iraupena ere aldatu daiteke, baina azken etapa hori derrigorrez bete beharko dute parte hartzen dute talde guztiek.

Planeta dantzan programaren baitan webgune bat eta erakusketa bat eginen dira, non erakutsiko baitira parte hartu duten ikastetxeek egindako sentsibilizazio lanetako batzuk.



IKASTETXEAREN JUSTIFIKAZIO-MEMORIA

Txosten horrek azaldu beharko du, hautaketa-irizpideak kontuan hartuta, ikastetxearen egokitasuna programa honetarako (2 orrialde gehienez).

Empty space for the justification report content.

LAN BATZORDEA / TALDE ERAGILEA

Ikastetxearen proposamenean parte hartzen badute zenbait irakaslek, irakasgaik edo departamentuk, lan-batzorde bat osatu beharko da, eta hori Lantaldearekin elkartuko da programaren jarraipena egiteko.

IZENA	KARGUA / IRAKASGAIA